# Bestelako Iragarpen Ofizialak
# Otros Anuncios Oficiales

INDSUTRIA ETA MERKATARITZA SAILA

IRAGARPENA, Bizkaiko Industriako Lurralde Ordezkaritzarena, Bizkaian Karrantzako Udal Mugarteko Molinar Auzoan kokatuta dagoen 137. zenbakidun Putzuko urak (San Bizente Iturria) ur «measendagai»tzat aldarrikatzeko eskabidea argitaratzen duena. 476

IRAGARPENA, Arabako Industriako Lurralde Ordezkaritzarena, ingurubide bikoitzeko 45 KVko. elektrabidea istalatzea informazio publikora zabaltzen duena. 477

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, Zaratamoko udalerriko Sorospidezko Arauen behin-betiko onespena etetea dela eta, Hirigintza eta Ingurugiro-Sailak hartutako erabakiari buruzkoa. 478

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y COMERCIO

ANUNCIO de la Delegación Territorial de Industria de Bizkaia, por el que se hace público la solicitud de declaración como aguas «minero-medicinales», de las aguas del Pozo nº 137 (Fuente San Vicente), sito en el Barrio Molinar del Término Municipal de Carranza (Bizkaia). 476

ANUNCIO de la Delegación Territorial de Industria de Alava, por el que se somete a información pública la instalación de una línea eléctrica a 45 kV. doble circuito. 477

DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

ANUNCIO del acuerdo adoptado por el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente relativo a la suspensión de la aprobación definitiva de las Normas Subsidiarias del municipio de Zaratamo. 478

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## KULTURA ETA TURISMO SAILA

### 225

Urtarrilaren 10eko 7/1989 DEKRETUA, kirol-disziplinari buruzko Arautegia ezartzen duena.

Eusko Legebiltzarrak 1988.eko otsailaren 19an egindako osoko batzarrean, Soin-Kulturaren eta Kirolaren Legea onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 1988.eko martxoaren 17an argitaratuz, indarrean sartu zen Lege hori.

Aipatutako Legeko V. idazpuruak zigor-errejimenaz dihardu, idazpuru horretako I. atalean kirolari buruzko Diszíplina-Errejimena arautzen dela eta II. atalburuan administrazio-legehauspenak eta zehapenak tipifikatzen direla.

Zioen adierazpenean, Lege hori «Oinarri-Lege» bat zela esaten zenez, bere helburua, arauen bidez geroago garatu beharko diren funtsezko eta ezinbesteko elementu edo kontzeptuak ezartzea da. Azken Xedapenetatik Lehenengoan, Autonomi-Elkarteko Jaurlaritzari espreski ematen zaio esku, Lege hori garatzeko eta hori bete dadineko bideak jartzeko, horretarako beharrezko diren xedapenak eman beharko dituela.

Ildo horretan, honako hau da Dekretu honen helburua, hau da, agindu hori betetzea, horretarako, Legean ematen diren oinarrizko kontzeptuak jaso eta zehazten dira kirol-diziplinari dagozkionetan, kirol-ihardunak dituen ñabardurei buruzko prozedura-sistema egoki bat arautzen dela eta, aldi berean, legebideak errazten direla ahal den neurrian eta Dekretu honek haien gain eragina izan dezaneko pertsonen defentsabideak ahalik eta gehien bermatzen direla.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

### 225

DECRETO 7/1989 de 10 de Enero, por el que se regula el Reglamento de Disciplina Deportiva.

Con fecha 17 de marzo de 1988, mediante su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, entró en vigor la Ley de la Cultura Física y del Deporte, aprobada en la sesión plenaria del Parlamento Vasco de fecha 19 de febrero del mismo año.

La mencionada Ley dedica su título V al Régimen sancionador, regulando en el artículo 1º de dicho título el Régimen disciplinario deportivo y tipificando en el capítulo II las infracciones y sanciones administrativas.

En la exposición de motivos se expresaba el carácter de «Ley marco» que tiene la citada disposición, siendo pues su finalidad la de establecer elementos o conceptos básicos e imprescindibles que deberán luego ser desarrollados a través de la vía reglamentaria. En la Disposición Final Primera se atribuye expresamente al Gobierno de la Comunidad Autónoma la facultad de regular el desarrollo de la Ley y la tarea de posibilitar el cumplimiento de la misma, dictando al efecto las necesarias disposiciones reglamentarias.

El presente Decreto tiene, pues, por objeto dar cumplimiento a ese mandato, contemplando y detallando los conceptos básicos contenidos en la Ley en lo que se refiere a la disciplina deportiva y regulando un sistema procedimental adecuado a las peculiaridades de la actividad deportiva que pretende, al mismo tiempo simplificar los trámites en la medida de lo posible y garantizar al máximo las posibilidades de defensa de los afectados.

Azkenik, Soin-Kulturaren eta Kirolaren Legeko 66-5 atalean esaten denari jarraituz, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan, kirol-disziplinari dagozkionetan, Goreneko Mailako Organua den Kirol-Disziplinako Euskal Komitea sortze, horren ihardutze eta horrek dituen aginteei buruzko arauak zehaztu eta garatzen dira.

Horiek horrela, Kultura eta Turismo Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza Kontseiluak 1989.eko urtarrilaren 10ean egindako batzarrean aztertu ondoren, honako hau xedatzen dut:

I IDAZPURUA

I Atalburua: Guztientzako Xedapenak.-

*1. Atala.–* Otsailaren 19ko Soin-Kulturaren eta Kirolaren 5/1988 Legeko V Idazpuruan orohar arautzen den kirol-disziplinaren errejimena, bai Arautegi honen bidez eta kirol-moeta bakoitzarentzako ematen diren gainontzeko arauen bidez garatzen da, zehapen-zuzenbideak ematen dituen printzipio orokorren araber .

*2. Atala.–* n-Kulturaren eta Kirolaren Legean jasotzen diren xedapenen arabera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saileko Kirol-Zuzendaritzak behar bezala onartutako kirol-klub, baterakunde eta federakundeek emandako xadapenen bidez tipifikatzen diren hauspenak hartzen ditu kirol-arautegi honen aginte-eremuak, hauspen horiek joku edo lehiaketari eta kirol-harremanetako jarrerei buruzko arauak hartzen dituztela.

II Atalburua: Hauspenak.

*3. Atala.–* 1. Jokua edo lehiaketa egiten den aldian, horietakoren bat ohi den bazala burutzen ez uztea edo nahastea da, joku edo lehiaketari buruzko arauak haustea

2. Honako hauek dira kirol-harremanekiko jarrerarekiko hauspenak, hau da, kirol-harremanen ohizko garapenean kalte egin edo eragozpenak sor ditzaketen eta aurreko apartaduan sartzen ez diren ekintzak edo omisioak gauzatzea.

3. Lurralde mailako eta Euskal Herri mailako kirol federakundeek, bakoitzak haren ardura dueneko kirol-moetari aplikagarri zaion eta disziplina-erejimenari dagokion guztia arautu eta garatu behar dute beren estatutu eta arautegietan, ondoren aipatzen diren alde hauek argi eta garbi jasoko direla Arautegi honetan ezartzen diren baldintza orokorrei jarraituz:

a) Honako hauek jasoko dituen eta hauspenei buruzko tipifikatutako sistema bat, hau da, sailkapena larritasunaren edo arintasunaren arabera; aplikagarri zaizkien zehapenak; erantzukizuna kendu, astunagotu edo arintzen duten inguruabarrak eta erantzukizuna amaitu dadineko kasuak; honako debeku-printzipio hauek egiatan beteko direla berma dezaten arau hauek ere jaso behar dira, hots, tipifikatu gabeko eta hauspena egin baino lehen ez dela ezarriko zigorrik, ekintza berarengatik ez direla ezarriko bi zehapen, zehapenen proportzionaltasuna kontutan hartuko dela eta atzeraeragina duten aldezko ondorioak aplikatuko direla.

b) Zehapen-inposaketarako prozedura, aurre-audientzia, defentsa eta errekurtso-eskubideak bermatu beharko zaizkiela interesatuei bertan.

Finalmente, y de acuerdo con la previsión contenida en el artículo 66-5 de la tan citada Ley de la Cultura Física y del Deporte, se determinan y desarrollan las normas sobre la constitución, funcionamiento y facultades competenciales del Comité Vasco de Disciplina Deportiva, Organo Superior en materia disciplinaria deportiva dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión de 10 de enero de 1989, dispongo:

TITULO I

Capítulo I: Disposiciones Generales.

*Artículo 1.–* El régimen disciplinario deportivo, regulado con carácter general en el Título V de la Ley 5/1988, de 19 de Febrero, de la Cultura Física y del Deporte, se desarrolla, de acuerdo con los principios generales del derecho sancionador, en el presente Reglamento y en las demás normas reglamentarias que se promulguen para cada modalidad deportiva.

*Artículo 2.–* El ámbito de la potestad reglamentaria deportiva se extiende a las infracciones de las reglas del juego o competición y a las de la conducta deportiva, tipificadas, según las disposiciones de la citada Ley de la Cultura Física y del Deporte, en el presente Reglamento y, en los términos que en él se señalan, en las disposiciones de los clubes, agrupaciones y federaciones deportivas debidamente aprobadas por la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

Capítulo II: Infracciones.

*Artículo 3.–* 1. Son infracciones a las reglas del juego o competición las acciones u omisiones que impidan o perturben, durante el curso de aquél o de ésta, su normal desarrollo.

2. Son infracciones a la conducta deportiva las acciones u omisiones que, sin estar comprendidas en el número anterior, perjudiquen o menoscaben el desarrollo normal de las relaciones deportivas.

3. Las federaciones deportivas territoriales y vascas deberán regular y desarrollar en sus disposiciones estatutarias y reglamentarias cuanto concierne al régimen disciplinario aplicable a su respectiva modalidad deportiva, previendo, de forma inexcusable y siguiendo las condiciones generales establecidas en el presente Reglamento, los siguientes extremos:

a) Un sistema tipificado de infracciones, que comprenda su clasificación en función de su gravedad o levedad, las sanciones aplicables a las mismas, las circunstancias que eximen, agravan o atenúan la responsabilidad y los supuestos de extinción de la misma, así como cuantas normas se requieran para la efectividad de los principios de prohibición de sancionar por infracciones notipificadas con anterioridad a su comisión, de inexistencia de una doble sanción por los mismos hechos, de proporcionalidad de las sanciones y de aplicación de los efectos retroactivos favorables.

b) El procedimiento para la imposición de sanciones, en el que se garantizarán a los interesados los derechos de audiencia previa, defensa y recurso.

*4. Atala.*– Oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke kirol mailako hauspenak.

2. Honako hauspen hauek hartuko dira oso larritzat:

a) Agintekeriak.

b) Erasoak, bortxakeriak eta mehatxuak.

c) Ezarpenaren gai izan diren zehapenak ez betetzea.

d) Froga edo lehiaketaren emaitza aurrez finkatzea xedetzat duten ekintzak.

e) Kirol-moeta baten garapen eta praktikaren oso aurkakoa izan daitekeen beste edozein jarrera.

3. Honako hauek joko dira hauspen larritzat, oso larriak izan ez daitezenaren baldintzapean:

a) Haserrezko eraso, irain eta gaitzespen nabarmenak.

b) Gauzatzen den kirol-ihardun edo egitekoarekin bateragarri ez direla deklaratuta daudeneko ihardunak egitea.

c) Agintedun pertsona eta organuek eman ditzaten aginduak, akordioak eta oharrak ez betetzea.

d) Argi eta garbi kirolak merezi duen errespetu eta duintasunaren aurkakoak diren ekintzak.

e) Kirolari buruzko arauen aurkako jarrera.

4. Honako hauek joko dira hauspen arintzat, hau da, nagikeriaz edo zabarkeriaz, kirolei buruzko arauak edo aginduak ez betetzea dakarten ekintzak eta omisioak edo nolabait ezegokia den jarrera.

*5. Atala.*– 1. Federakundeen estatutuetako xedapenek, hauspen bakoitzari aplikagarri zaizkion zigorrak jaso beharko dituzte, zigor horien artean honako hauek azaldu beharko dutela:

a) Ohartarazpen edo zentzarazpenak.

b) Aldibatez gaieztatzea eta ahalgabetzea.

c) Federakundeak emandako lizentzia kentzea aldibaterako edo betirako.

d) Betirako gaieztatzea.

e) Kirol lekua istea.

Halaber, ekonomia mailako zigorrak ere ezarri ahal izango dira, hausleak, bere iharduna dela eta, soldata, prezioa edo ordainketa jaso dezanean; legeek ezartzen dituzten mugen barruan egingo da hori eta aurreko zerrendan aipatu direnen osagarri gisa.

Froga edo lehiaketa baten emaitza aldatzea edo aurrez finkatzea gerta dadineko kasuetan, agintea izan dezan disziplina-organuak, hauspenak ekarri dituen ondorio guztiak deuseztatzeko beharrezko diren neurriak hartu ahal izango ditu.

2. Zigorra betetzean, hiltzean, hauspenak edo zigorrak preskribitzean eta indultoa edo amnistia emaitzean, bukatu egingo da kirol-disziplinarekiko erantzkizuna.

3. Aplikagarri den disziplina-errejimenean oso larri, larri edo arintzat tipifikatuta dauden hauspenek, hiru urtera, urtera edo hilera preskribatuko dute hurrenez-hurren.

Oso larri, larri edo arintzat jotako hauspenei dagozkien zehapenak, hiru urtera, urtera edo hilera sartuko dira preskribapenpean.

*Artículo 4.*– 1. Las infracciones de carácter deportivo pueden ser muy graves, graves o leves.

2. Se consideran como infracciones muy graves:

a) Los abusos de autoridad.

b) Las agresiones, coacciones y amenazas.

c) Los quebrantamientos de sanciones impuestas.

d) Las actuaciones dirigidas a predeterminar el resultado de una prueba o competición.

e) Cualquier otra conducta gravemente atentatoria para el desarrollo y práctica de la modalidad deportiva correspondiente.

3. Se consideran infracciones graves, siempre que no revistan el carácter de muy graves:

a) Los insultos, las ofensas y las protestas airadas y ostensibles.

b) El ejercicio de actividades declaradas incompatibles con la actividad o función deportiva desempeñada.

c) El incumplimiento de órdenes, acuerdos e instrucciones emanadas de personas y órganos competentes.

d) Los actos que notoria y manifiestamente atenten al decoro o dignidad deportivos.

e) La conducta contraria a las normas deportivas.

4. Se consideran infracciones leves las acciones y omisiones que supongan incumplimiento de las normas u órdenes deportivas por negligencia o descuido, o una conducta ligeramente incorrecta.

*Artículo 5.*– 1. Las disposiciones estatutarias federativas deberán prever las sanciones aplicables a las infracciones respectivas, entre las que deberán figurar las siguientes:

a) Apercibimiento o amonestación

b) Inhabilitación y suspensión temporal.

c) Privación, temporal o definitiva, de la licencia federativa.

d) Inhabilitación a perpetuidad.

e) Clausura del recinto deportivo.

Asímismo se podrán imponer, en los casos en los que los infractores perciban una remuneración, precio o retribución por su actividad, sanciones de contenido económico, dentro de los límites legalmente establecidos y con el carácter de complementarias a las establecidas en la enumeración precedente.

En los casos de alteración o predeterminación del resultado de una prueba o competición, el órgano disciplinario competente podrá también adoptar cuantas medidas sean necesarias para anular todos los efectos producidos por la infracción.

2. La responsabilidad disciplinaria deportiva se extingue con el cumplimiento de la sanción, muerte, prescripción de la falta o de la sanción, e indulto o amnistía.

3. Las infracciones prescriben a los tres años, al año o al mes, según se trate, respectivamente, de las tipificadas como muy graves, graves o leves en el régimen disciplinario aplicable.

Las sanciones prescriben a los tres años, al año o al mes, según se trate de las correspondientes a infracciones muy greves, graves o leves, respectivamente.

Honako era honetan kontatuko dira preskripzio-epeak:

a) Hauspen kasuetan, hauspena egin den egun beretik hasita. Preskripzio horrek etena izango du, zigor-prozeduraren berri hausleak jaso dezanean; eta preskripzio-aldiak berriro ere aurrera egingo du, zigorra ezarri gabe, prozedura hori amaitu dadinean edo prozedura gelditu dadinean.

b) Zehapen kasuetan, zehapen-erabaki irmoa eman dadin egunetik edo hori hautsi dadin egunetik hasita, betetzeari ekin bazaio. Preskripzioak etena izango du eta igarotako aldiak ez du indarrik izango, preskripzioa osatu baino lehen hausleak beste hauspen bat burutuko balu, preskripzioak aurrera egin dezanaren kaltetan gabe.

4. Kirol mailako desziplina-zehapenekiko indulto edo amnistien harmena eta ondorioak, horiek eman ditzaten xedapenez erregulatuko dira hala behar izan dadinean.

5. Era berean, birgaiketa eskatzeko ahalbidea ematen zaie zehapekoei, honako epe hauen barruan egin beharko dela hori, zehapena bete dadin egunetik hasita kontatuko dela epea eta, ondorioz, aurrekinak kenduko liratekeela:

a) Sei hilabetetara, hauspen arin bat dela eta, ezarri bada zehapena.

b) Bi urtetara, hauspen larri bat dela eta, ezarri bada zehapena.

c) Lau urtetara, hauspen oso larri bat dela eta, ezarri bada zehapena.

Zehapena ezarri zuen organu beraren aurrean eskatuko da birgaiketa, judiziamendurako eta hauspenaren zehapenerako erabili zena bera izango dela prozedura, errekurtso berdinak egingo direla.

6. Honako inguruabar hauek joko dira inguruabar salbuesletzat:

a) Erotasun edo buru-nahaste iragankor egoeran hauspena egitea, egoera horrek iraun dezan aldian hausleari kirol-iharduna garatzeko gaitasuna ken dakionaren kaltetan gabe.

b) Zilegi den ekintza bat burutzean, halabeharrez, kulparik gabe eta hauspena egiteko intentziorik gabe, legehauspena egitea.

c) Beharra, eutsiezinezko indarra edo gainditu-ezinezko egoera ematea.

d) Eginbehar bat betetzearren edo obligaziozko obedientziaren eraginez, jokatu izana.

7. Honako inguruabar hauek joko dira inguruabar arintzailetzat:

a) Aurreko zenbakian aipatutakoak, erantzukizunetik salbu uzteko beharrezko diren baldintzak eman daitezenean izan ezik.

b) Hauspena egin aurre-aurrean, nahiko zirikaketa handia eman denean.

c) Diziplina-espedienteari hasera eman zaionaren berri izan aurretik, bestegabeko damutasuna eman baldin bada hauslearengan.

8. Honako inguruabar hauek joko dira inguruabar astungarritzat:

El término de prescripción comenzará a correr:

a) Para las infracciones, desde el día en que se hubiesen cometido. Esta prescripción se interrumpirá desde que el procedimiento sancionador se dirija contra el infractor, volviendo a correr de nuevo el tiempo de la prescripción desde que aquél termine sin ser sancionado o se paralice el procedimiento.

b) Para las sanciones, desde la fecha de la resolución sancionadora firme o desde que se quebrantase su cumplimiento, si éste hubiera comenzado. Se interrumpirá la prescripción quedando sin efecto el tiempo transcurrido cuando el sancionado cometa otra infracción antes de completar el tiempo de la prescripción, sin perjuicio de que ésta pueda comenzar a correr de nuevo.

4. La amplitud y efectos de los indultos o amnistías de sanciones disciplinarias deportivas se regularán en su caso por las disposiciones que las concedan.

5. Asimismo, se establece la posibilidad de los sancionados de pedir su rehabilitación, con la consiguiente cancelación de los antecedentes, en los siguientes plazos, contados a partir del cumplimiento de la sanción:

a) A los seis meses, si la sanción hubiere sido por falta leve.

b) A los dos años, si fuere por falta grave.

c) A los cuatro años, si lo hubiere sido por falta muy grave.

La rehabilitación se solicitará ante el mismo órgano que impuso la sanción, y el procedimiento será el seguido para el enjuiciamiento y sanción de la falta, con iguales recursos.

6. Se considerán como circunstancias eximentes de la responsabilidad:

a) El haber cometido la infracción en estado de enajenación o en situación de trastorno mental transitorio, sin perjuicio de la posibilidad de declarar la incapacidad del infractor para el desarrollo de la actividad deportiva de que se trate mientras dure ese estado o situación.

b) El hacer incurrido en la infracción al ejecutar un acto lícito, por mero accidente y sin culpa ni intención de causarla.

c) El concurrir estado de necesidad, fuerza irresistible o miedo insuperable.

d) El haber obrado en el cumplimiento de un deber o en virtud de obediencia debida.

7. Se considerarán como circunstancias atenuantes de la responsabilidad:

a) Las expresadas en el número anterior, cuando no concurrieren los requisitos necesarios para eximir de responsabilidad en sus respectivos casos.

b) La de haber precedido, inmediatamente a la comisión de la infracción, provocación suficiente.

c) La de concurrir arrepentimiento espontáneo por parte del infractor, antes de tener conocimiento de la incoación del expediente disciplinario.

8. Se considerarán como circunstancias agravantes de la responsabilidad:

a) Agintekeriaz edo konfidantzakeriaz jokatzea.

b) Errepikatzaile edo berrerorle izatea.

Honako kasu honetan ematen da errepikapena, hau da, Arautegiak, zentzabide berdintzat edo handiagotzat jotzen duen beste ekintza bat dela eta, edo Arautegiak zentzabide txikitzat jotzen dituen beste hauspen batzuk direla medio, norbait zehatua izan denean denboraldi beraren barruan alegia.

Honako kasu honetan ematen da berrerorketa, hots, zentzapenaren gai izan den ekintza analogo bategatik, norbait zehatua izan denean denboraldi beraren barruan alegia.

III Atalburua: Kirol-Ihardunaren Disziplina mailako Antolaera.

*6. Atala.*– Honako hauei dagokie disziplina-agintea erabiltzea, bakoitzari bere aginte-eremu barruan:

a) Epaile eta arbitroei.

b) Kirol klubei eta baterakundeei.

c) Lurralde eta Euskal Herri mailako federakundeei.

d) Kirol Disziplinako Euskal Komiteari.

*7. Atala.*– Lehiaketak edo frogak burutzen diren bitartean erabiliko dute disziplina-agintea epaileek edo arbitroek, kirol-moeta bakoitzerako ezarrita dauden arauei atxikiz eta, hala behar izan dadinean, halako edo holako lehiaketa edo frogarako ezarri direnei atxikiz.

*8. Atala.*– 1. Bazkide, afiliatu, kirolari eta teknikarien gain erabiliko dute klubek eta baterakundeek beren disziplina agintea, Estatutuek, Araudiek eta kirolari buruzko gainontzeko arauek diotenaren arabera.

2. Kirol mailako klubek eta baterakundeek, aipatutako eremu horren barruan, honako kasu hauetan erabiliko dute beren disziplina-agintea eta lehen-instatziz:

a) Lehiaketa edo frogek, barne izaera edo maila izan dezatenean bakarrik.

b) Kirol mailako beste klub eta baterakunde batzutako kirolariek parte hartzen baldin badute ere, lehiaketaren edo frogaren sustapena eta antolaera halako edo holako klub edo baterakundeari dagokionean eta, lurralde eremuan edo Autonomi Elkartean, ofizialki homologatuak izan ez daitezenean horien emaitzak.

*9. Atala.*– 1. Bere egitura organikoko parte izan eta beroiei atxikitako klubetako eta baterakundeetako kirolari eta teknikari diren pertsonen gain erabiliko dute beren disziplina-agintea Lurralde-Federakundeek, klub eta baterakunde horien gain eta bai, orohar, federatuta egon eta Federakunde horri dagokion kirol-moeta praktika dezaten pertsonen gain ere.

2. Lurralde mailako Federakundeek, aipatutako aginte-eremu horren barruan, honako kasu hauetan erabiliko dute beren disziplina-agintea eta lehen-instatziz:

a) Lehiaketa edo frogek, barne izaera edo maila izan dezatenean bakarrik.

b) Dagokion Lurralde Federakundeak emandako lizentzia duten kirolariek bakarrik parte hartu dezatenean lehiaketa edo frogetan.

c) Beste edozein Federakundek emandako lizentziadun kirolari batzuk parte hartzen baldin badute ere,

a) Obrar con abuso de autoridad o con abuso de confianza.

b) Obrar con reiteración o reincidencia.

Hay reiteración cuando el autor de una falta hubiera sido sancionado en el transcurso de una misma temporada por otro hecho al que el Reglamento señala igual o mayor correctivo, o por más de una al que aquel señale correctivo menor.

Hay reincidencia cuando el autor de una falta hubiere sido sancionado en el transcurso de una misma temporada por el hecho de análoga naturaleza al que se corrige

Capítulo III: Organización Disciplinaria Deportiva.

*Artículo 6.*– Corresponde el jercicio de la potestad disciplinaria, dentro de sus respectivas competencias:

a) A los jueces y árbitros.

b) A los clubes y agrupaciones deportivas.

c) A las federaciones territoriales y vascas.

d) Al Comité Vasco de Disciplina Deportiva.

*Artículo 7.*– Los jueces o árbitros ejercen la potestad disciplinaria deportiva durante el desarrollo de las competiciones o pruebas, con sujeción a las reglas establecidas para cada modalidad deportiva y, en su caso, a las que se hubieren fijado para la competición o prueba de que se trate.

*Artículo 8.*– 1. Los clubes y agrupaciones deportivas ejercen la potestad disciplinaria sobre sus socios, afiliados, deportistas y técnicos, de acuerdo con sus Estatutos y Reglamentos y con el resto del ordenamiento jurídico deportivo.

2. En el mencionado ámbito, los clubes y agrupaciones deportivas ejercen en primera instancia su potestad disciplinaria en los siguientes casos:

a) Cuando se trate de competiciones o pruebas que sean de carácter o rango exclusivamente interno.

b) Cuando, aun participando deportistas pertenecientes a otros clubes o agrupaciones deportivas, la promoción y organización de la competición o prueba corresponda al club o agrupación de que se trate y sus resultados no sean homologados oficialmente en el ámbito territorial o de la Comunidad Autónoma.

*Artículo 9.*– 1. Las Federaciones territoriales ejercen la potestad disciplinaria sobre todas aquellas personas que forman parte de su estructura orgánica, sobre los deportistas y técnicos de los clubes y agrupaciones deportivas a ellas adscritas, sobre estas últimas y, en general, sobre todas aquellas personas que, hallándose federadas, practiquen su modalidad deportiva.

2. En el mencionado marco de sus competencias, las Federaciones territoriales ejercen en primera instancia su potestad disciplinaria en los siguientes casos:

a) Cuando se trate de competiciones o pruebas que tengan nivel, carácter o rango exclusivamente territorial.

b) Cuando participen en la competición o prueba exclusivamente deportistas cuyas licencias federativas hayan sido expedidas por la Federación Territorial de que se trate.

c) Cuando, aun participando deportistas con licencias expedidas en cualesquiera otras Federaciones, la

lehiaketaren edo frogaren sustapena eta antolaera Lurralde Federakundeari dagokionean eta, Autonomi Elkarte edo nazioarte mailan, ofizialki homologatuak izan ez daitezenean horien emaitzak.

*10. Atala.*– 1. Honako hauen gain erabili ahal izango dute Euskal Federakundeek beren disziplina-agintea: Hauen egitura organikoko kide diren pertsonen gain, Lurralde Federakundeen egitura organikoko kide diren pertsonen gain, Lurralde Federakundeen gain, kirol mailako klub eta federakundeen gain eta hauei atxikita dauden kirolari eta teknikarien gain eta, orohar, Euskal Federakundeari dagokion kirol-moeta garatu dezaten eta federatuta dauden pertsona guztien gain.

2. Aginte-eremu horren barruan, aurreko ataleko 2. zenbakiak hartzen ez dituen kasu guztien gain eta lehen-instatziz eta, bigarren instantziz, Arautegi honetan eta kirol-moeta bakoitzari buruzko Estatutu eta arauetan aurrikusten diren kasuetan.

*11.Atala.*– Euskal Federakundeek beren disziplina-agintea haien [illegible] erabiltzen duteneko pertsona .eta Entitateen gain izango du agintea, Euskal Herriaren eremuan kirol-disziplina arloan goreneko mailako organua den Kirol Disziplinako Euskal Komiteak eta bai Federakundeen gain ere, ofizioz tratatzea egokitzat jo, errekurtso-bidez bere pean jarri eta Eusko Jaurlaritzako Kirol-Zuzendaritzak edo agintea izan dezan beste edozein erakundek eskatutako arazoei ebazpena emango diela administrazio mailako azken maila denez.

*12. Atala.*– Eusko Jaurlaritzako Kirol-Zuzendaritzak, ofizioz edo norbaitek hala eskatuta, jo ahal izango du kirol-klub eta baterakundeetara, Lurralde Federakundeetarako, Euskal Federakundeetara eta Kirol Disziplinako Euskal Komitera, kirol-disziplinaren aurkako hauspenak direla eta, edo, horien ondorioz, denuntziak egiteko edo horiei buruzko espedienteei hasera emateko.

*13. Atala.*– Aurreko ataletan aipatzen diren disziplina-organuen artean arazoen tramitapen edo ebazpenei buruz sor daitezkeen gatazka positibo eta negatiboen ebazpena, goragoko mailako organuak egingo du hierarkoki elkarren artean lotuta baldin badaude edo, bestela, guztien gainetik dagoen organuak.

## II IDAZPURUA

I Atalburua: Disziplina-Prozedurari buruzko Printzipio Orokorrak.

*14. Atala.*– 1. Kirol-moeta bakoitzari buruzko estatutu eta arautegi mailako xedapenek, disziplina-errejimena aplikatzeko prozedura-sistemak ezarri eta arautu beharko dituzte, Idazpuru honetan ezartzen diren printzipioen arabera.

2. Disziplina-Organuen iharduera arin eta emankorrerako bideak eskaini beharko dituzte prozedurek eta, aldi berean, interesatuek, audientzia izateko, beren buruak defendatzeko eta errekurtsoa egiteko dituzten eskubideak jaso beharko dituzte.

3. Espedienteak artez hartzen dituen pertsona eta entitateez aparte, honako hauek ere interesduntzat joko dira kirol-disziplina arloan, hau da, eman daitezkeen xedapenek haien gain eragina izan dezaketeneko pertsona guztiak alegia, pertsonek dituzten legezko eskubide edo interesetan, aldezko edo kontrako ondorioak ekar bait ditzakete xedapen horiek.

promoción y organización de la competición o prueba corresponda a la Federación Territorial de que se trate y sus resultados no sean homologados oficialmente en el ámbito comunitario o internacional.

*Artículo 10.*– 1. Las Federaciones vascas ejercen la potestad disciplinaria sobre todas las personas que formen parte de su estructura orgánica, sobre las personas que forman parte de la estructura orgánica de las Federaciones territoriales, sobre éstas, sobre los clubes y agrupaciones deportivas y sus deportistas y técnicos y, en general, sobre todas aquellas personas que, encontrándose federadas, desarrollan su modalidad deportiva.

2. En el mencionado ámbito, ejercen su potestad en primera instancia sobre todos los casos no comprendidos en el número 2 del artículo anterior, y, en segunda instancia, en los supuestos previstos en el presente Reglamento y en los respectivos Estatutos y normas reglamentarias de cada modalidad deportiva.

*Artículo 11.*– El Comité Vasco de Disciplina Deportiva, órgano superior en materia disciplinaria deportiva en el ámbito del País Vasco, ejerce su potestad sobre las mismas personas y Entidades que la ejercen las Federaciones Vascas, y sobre estas mismas, resolviendo en última instancia administrativa las cuestiones que estime pertinente tratar de oficio, las que le sean sometidas por vía de recurso y a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco o de cualquier otra institución competente.

*Artículo 12.*– La Dirección de Deportes del Gobierno Vasco podrá dirigirse, de oficio o a instancia de parte, a los clubes y agrupaciones deportivas, a las Federaciones Territoriales y vascas y al Comité Vasco de Disciplina Deportiva para formular denuncias o solicitar la incoación de expedientes con ocasión o como consecuencia de infracciones a la disciplina deportiva.

*Artículo 13.*– 1. Los conflictos, positivos y negativos, que sobre la tramitación o resolución de asuntos se susciten entre los órganos disciplinarios a que se refieren los artículos precedentes serán decididos por el de rango superior si aquellos estuvieren ligados jerárquicamente entre sí, o por el superior común en otro caso.

## TITULO II

Capítulo I: Principios Generales del Procedimiento Disciplinario.

*Artículo 14.*– 1. Las disposiciones estatutarias y reglamentarias de cada modalidad deportiva deberán prever y regular los sistemas procedimentales para la aplicación del régimen disciplinario, de acuerdo con los principios establecidos en el presente Título.

2. Los procedimientos habrán de conjugar la posibilidd de actuación rápida y eficaz de los Organos disciplinarios con la salvaguarda de los derechos de audiencia, defensa y recurso de los interesados.

3. En la disciplina deportiva se considerarán interesados, además de las personas o entidades directamente afectadas por el expediente,todas aquellas personas a cuyo favor o en cuyo perjuicio se derivasen derechos o intereses legítimos en relación con los efectos de las resoluciones adoptadas.

*15 Atala.*– 1. Hiru aldi izango ditu kirol-disziplinako prozedurak:

a) Hasera ematea.

b) Espedientea instruitzea.

c) Ebazpena ematea.

2. Agintedun disziplina-organuak emango dio hasera prozedurari, ofizioz, horretan interesa duenak hala eskatuta, agintea duen Erakundeak edo Instituzioak, arrazoi eta guzti, egindako denuntziaz edo eskabidez.

3. Arautegi honetako 1.1.ean aipatzen diren xedapenez erregulatuko da espedientea instruitzea eta espedienteari ebazpena ematea, Idazpuru honetan jasotzen diren arauen arabera.

4. Ofizioz bultzatuko da espedientea bere tramitapenaldi guztietan.

*16. Atala.*– Kirol mailako disziplina-organuek, espediente-metaketa erabaki ahal izango dute, tramitapen eta ebazpen bakarrez baliatzea eska dezaketen arrazoizko eta behar hainbateko, subjetibo edo objetibo mailako identitate edo analogia inguruabarrak eman edo bateratu daitezenean.

*17. Atala.*– 1. Kirol mailako disziplina-organuek, espedienteari hasera ematerakoan, honako hau ere erabaki ahal izango dute, hau da, ebazpenaren emankortasuna bermatzeko edo konponezinezko kaltea edo kalte-galerak alboratzeko beharrezkoak izan daitezkeen zuhurtasunezko neurriak hartzea alegia.

Nuerri hauek indarrean iraungo dute, espedientearen tramitapen-aldian eta ebazpena eman arte, interesatuei horien berri eman behar zaiela egokitzat jotako errekurtsoa egiteko ahalbideak izan ditzaten interesatuek.

2. Ezin hartu edo aplikatu ahal izango da, legez babestuta dauden eskubideak galtzea ekar dezakeen zuhurtasunezko neurririk.

*18. Atala.*– 1. Interesatuek, prozeduraren edozein alditan, auzi-uztea egin ahal izango dute, auzi-uztea aurkeztu duenarekiko bakarrik ekarriko baldin baditu ere ondorioak.

2. Agintedun organuaren aurrean egin beharko da auzi-uztea, nahiz idatziz, nahiz hitzez bere aurrean azalduz, egoki izan dadin diligentzia egin edo suskribatu beharko dela azken kasu honetan.

3. Disziplina-espedientea amaitzea eta artxibatzea ekarriko ditu auzi-uzteak, gisa horretako eskabiderik egin ez duten beste interesatu batzuk egon daitezeneko kasuan izan ezik edo, gehiengoaren interesak direla medio, prozedurari jarraitzea dagokion Organuak erabaki dezanean salbu.

*19. Atala.*– 1. Kirol-arauak haustea bere baitan daramaten ekintza edo jarrerek delitu-kutsua izan dezatenean, espedienteari hasera emateko gaitasuna duen kirol-disziplinako Organuak, zehazpen-jurisdikziora pasatu beharko du egon daitekeen kulpa-aldea ohizko prozeduren arabera, disziplina-espedientea etenda gelditiko dela dagokion epailaritzak ebazpena eman arte eta, aldi horretan, zuhurtasunezko neurriak hartu ahal izango direla eta interesatuei horren berri emango zaiela probidentzia-bidez.

2. Pena-kausaz zehapenpean gel daitekeen ekintza bera, ezin daiteke berriro sekula izan disziplina-erantzukizundun espedientearen gai.

*Artículo 15.*– 1. El procedimiento disciplinario deportivo, constará de tres fases:

a) Incoación.

b) Instrucción del expediente.

c) Resolución.

2. La incoación o inicio del procedimiento se realizará por el Organo disciplinario competente, de oficio, a instancia de parte interesada, por denuncia motivada o por requerimiento de Organismo o Institución competente.

3. La instrucción y resolución del expediente se regulará en las disposiciones a que se refiere el art. 1.1° del presente Reglamento, de acuerdo con las normas contenidas en este Título.

4. El procedimiento se impulsará de oficio en todos sus trátimes.

*Artículo 16.*– Los órganos disciplinarios deportivos podrán acordar la acumulación de expedientes cuando se produzcan o concurran las circunstancias de identidad o analogía razonable y suficiente, de carácter subjetivo u objetivo, que hiciera aconsejable la tramitación y resolución única.

*Artículo 17. 1.*– Los órganos disciplinarios deportivos tendrán asimismo la facultad de acordar, al iniciarse el expediente, la adopción de las medidas cauterales que fueren precisas para salvaguardar la efectividad del fallo o para evitar un daño o perjuicio irreparable.

Estas medidas subsistirán durante la tramitación del expediente y hasta su resolución, y deberán ser notificadas a los interesados a los efectos del oportuno recurso.

2. No se podrán adoptar o aplicar medidas cautelares qe impliquen violación de derechos amparados por las leyes.

*Artículo 18.*– 1. Los interesados podrán desistir de sus pretensiones en cualquier fase del procedimiento, si bien el desistimiento sólo surtirá efectos respecto de quien lo hubiera formulado.

2. El desistimiento habrá de formularse ante el órgano disciplinario competente, bien por escrito o bien oralmente mediante comparecencia, debiendo en este último caso extenderse y suscribirse la correspondiente diligencia.

3. El desistimiento producirá la finalización y archivo del expediente disciplinario, salvo que existieran otros interesados que no hubieran formulado tal petición o el Organo competente acordara no obstante la continuación del procedimiento por razones de interés general.

*Artículo 19.*– 1. En el supuesto de que los hechos o conductas que constituyen infracción a las reglas deportivas revistieran caracteres de delito, el Organo disciplinario deportivo competente para iniciar o incoar el expediente deberá pasar el tanto de culpa ante la jurisdicción penal conforme a los procedimientos ordinarios, acordando la suspensión del expediente disciplinario hasta que se pronuncie la decisión judicial correspondiente y pudiendo entretanto adoptar las medidas cautelares oportunas mediante providencia comunicada a los interesados.

2. En ningún caso un mismo hecho sancionado en causa penal podrá ser objeto de un posterior expediente de responsabilidad disciplinaria.

II Atalburua: Disziplina-Prozedura Orokorra

*20. Atala.–* 1. Atalburu honetan arautzen den kirol-disziplinako prozedurari, horretan agintedun organuak emango dio hasera probidentzia bidez Idazpuru honetako 15.2 atalean ezartzen diren kasuetan, espedienteari tramiteak eginaraztea bere gain izango duten Instruktorea eta Idazkaria jasoko direla probidentzia horretan.

2. Probidentzia horren berri emango zaie, bai interesatuei eta bai 14.3 atalean aipatzen diren gainontzeko pertsonei ere.

*21. Atala.–* 1. Administrazio-prozedura orokorrerako indarrean dauden legeek ezartzen dituzten abstentzio eta ezespen kausak, aplikagarri izango zaizkie Instruktoreari eta Idazkariari.

2. Disziplina-espedientea ebazteko gaitasuna duen Organuaren aurrean erabili ahal izango da ezespen-eskubidea, izendapen-probidentziaren berri jaso dadin egunaren biharamunetik hasi eta hiru asteguneko epearen barruan.

3. Agintedun Organuak dagokion akordioa hartuko du Zuzenbideko Printzipioek diotenaren arabera eta bost asteguneko epearen barruan, murtziloak egin ahal izango direla espedientearen ebazpenaren aurka egon daitezkeen errekurtsoak egiterakoan.

*22. Atala.–* 1. Espedienteari hasera eman ondoren, -eta Agintedun Disziplina-Organuak, beharrezko izan dadinean, ezinbestekotzat jotako zuhurtasunezko neurriak, Instruktorearen proposamenez, hartu ondoren -onarpen aldiari emango dio hasera Instruktoreak; epe horren iraupena, hogei egun baino gutxiagokoa eta bost egunetik gorakoa izango da eta, epe horren barruan, ekintzak aztertzeko eta ekintza horiek ekar ditzaketen arantzukizunak finkatzeko beharrezko izan daitezen froga-diligentziak burutuko dira.

Instruktoreari dagokio egin behar diren froga-diligentziak zehaztea, berak hala eskatuta edo interesatuek, aurreko parrafoan aipatutako epearen barruan, idatziz aurkeztutako eskabide edo proposamenez, aginduaren edo onarpenaren gai izan diren frogak gauzatuko direneko leku, egun eta orduaren berri emango zaiela interesatuei.

2. Espedientearen tramitapenerako eta ebazpenerako ekintza nabarmenenak, legeek diotenaren arabera onargarri diren edozein froga-bidez egiaztatu ahal izango dira.

3. Frogak egitea onartze edo ukatzeari buruz Instruktoreak har ditzan erabakien aurka, ezin sartu ahal izango da inolako errekurtsorik, ebazpena eman aurreko audientzia-tramite aldian eta erabaki horren aurka bidezko izan daitezkeen errekurtsoetan, interesatuak, errekurtso-eskabidea egiteko duen eskubidearen kaltetan gabe.

*23. Atala.–* 1. Burutu diren ekintzak kontutan hartuz, Instruktoreak, egozpenaren gai izan diren ekintzak, burutu diren frogen emaitzak eta espedientearen ebazte-proposamena jasoko dituen kargu-plegua aurkeztuko du. Interesatuei horren berri emango zaie, beren eskubide eta interesak defendatzeko egokitzat jo ditzatenak, kargu-pleguaren berri eman dadin egunetik hasi eta hamar asteguneko epearen barruan, aurkez ditzaten.

2. Kargu-pleguak eta ebazpen-proposamenak erantzuna jaso ondoren edo, interesatuek tramitea bete gabe, lehen aipatu den epea igaro ondoren, Instruktoreak,

Capítulo II: Del Procedimiento General Disciplinario.

*Artículo 20.–* 1. El procedimiento disciplinario deportivo, regulado en el presente capítulo, se iniciará por el órgano competente, en los supuestos previstos en el art. 15.2º del presente Título, mediante providencia que deberá contener el nombramiento de Instructor y Secretario a cuyo cargo estará encomendada la tramitación del expediente.

2. Dicha providencia será notificada a los interesados y demás personas relacionadas en el art. 14.3.

*Artículo 21.–* 1. Al Instructor y Secretario son de aplicación las causas de abstención y recusación previstas en la legislación vigente para el procedimiento administrativo general.

2. El derecho de recusación podrá ejercerse ante el Organo competente para resolver el expediente disciplinario, en el plazo de tres días hábiles a contar del siguiente al que tengan conocimiento de la providencia de nombramiento.

3. El órgano competente acordará lo que proceda en Derecho en el plazo de cinco días hábiles, pudiéndose reproducir la reclamación al formularse los correspondientes recursos contra la resolución del expediente.

*Artículo 22.–* 1. Incoado el expediente, -y previa la adopción en su caso de las medidas cautelares que el Organo disciplinario competente estimare necesarias a propuesta del Instructor-, éste abrirá la fase aprobatoria, por un plazo no superior a veinte días ni inferior a cinco, durante el cual se practicarán cuantas diligencias de prueba sean necesarias para el esclarecimiento de los hechos y la determinación de las responsabilidades derivadas de los mismos.

Corresponderá al Instructor la determinación de las diligencias de prueba a practicar, bien a instancia suya o bien a petición o proposición presentada por escrito por los interesados dentro del plazo señalado en el párrafo anterior, debiendo comunicarse a dichos interesados el lugar, día y hora de celebración de las pruebas ordenadas o admitidas.

2. Los hechos relevantes para la tramitación y resolución del expediente podrán acreditarse por cualquier medio de prueba admisible en derecho.

3. Contra los acuerdos del Instructor sobre aprobación o denegación de práctica de prueba no procederá recurso alguno, sin perjuicio de que por el interesado se reproduzca su petición tanto en el trámite de audiencia previo a la resolución como en los recursos que contra dicha resolución procedan y formule.

*Artículo 23.–* 1. A la vista de las actuaciones practicadas, el Instructor formulará un pliego de cargos, en el que se expondrán los hechos imputados, el resultado de las pruebas que en su caso se hubieren practicado, y la propuesta de resolución del expediente. Todo ello será notificado a los interesados para que, en el plazo de diez días hábiles a contar desde la notificación, manifiesten lo que estimen conveniente en defensa de sus derechos e intereses.

2. Contestado el pliego de cargos y propuesta de resolución, o transcurrido el plazo señalado sin haberse evacuado el trámite por los interesados, el Instructor

agintedun organuari bidaliko dio espedientea ebazpena eman diezaion, haserako ebazpen-proposamenari eutsiz edo, hala behar izan dadinean, aurkeztu diren alegazioak direla medio, proposamena aldatuz, aldaketa horretan arrazoiak eman beharko direla.

*24. Atala.*– 1. Agintedun organuaren ebazpenak amaiera emango dio espedienteari, Instruktoreak espediente hori bidali zueneko egunaren biharamunetik hasi eta hamabost asteguneko epearen barruan eman beharko dela ebazpen hori.

2. Interesdunak proposatu zituen froga-diligentziak egin zitezela bere garaian eskatu eta, Instruktoreak eskabideari uko egin ziolako edo proposamengileari inputatu ezin dakizkiokeen beste edozein kausa dela medio, burutu ez ziren froga-diligentziak egiteko agindu ahal izango du ebazpena emateko agintea duen Organuak, ebazpena eman baino lehen.

III Atalburua: Ezohizko edo Presatasunezko Prozeduraz.

*25. Atala.*– 1. Kirol modalitate bakoitzeko estatutuek eta arautegiek, Arautegi honetan agertzen diren arauen barne, presatasunezko disziplina-prozedura oharteman beharko dute kirol-probetan, -partiduetan eta -lehiaketetan edo horien ondorioz egindako arau-hausteen berri izateko eta horiek zigortzeko; eta hori, arau-hausteok, aipatu saioen ohizko bilakaera bermatu xedez, disziplinazko Organuen berehalako parte hartzea eska dezatenean.

2. Hori doakienen aldi bereko alegazio-izapideak burutu ditzakete disziplinazko Organuek horrelako kasuetan, idatzizkoaren ordez berbazkoa izatea ere erabaki dezaketela, eta frogen praktika-izapideak ere -horien artean, partiduko arbitruaren aktak eta federazioko ordezkariaren eta Organuaren ordezkariaren erizpen--txostenek izango dute berebiziko garrantzia-; eta probak edo lehiaketak aurrera jarraitzeko beharrezkoak diren erabakiak beharrezko presatasunaz hartuz.

3. Aldibaterako ahalgabetzezko edo bidezko irudi dakion aurrehartzezko beste neurriren bat har dezake disziplinazko Organuak.

4. Kontutan hartu beharko da beti hori doakienei aldez-aurretik eskeini beharreko hizpidea; eta horiek duten eskubidea, hartutako akordioen aurka, horretarako dauden instantzien bidez egiteko.

IV. Atalburua: Jakinarazpenak eta Errekurtsoak

*26. Atala.*– 1. Kiroleko disziplina-prozeduretan emandako probidentziak eta erabakiak zioztatuak izan beharko dute eta hori doakienei emango zaie horren berri, -kasu bakoitzean ematen diren ebazpenak edo akordioak eta murtziloak edo errekurtsoak adieraziz-, horiek hartutako egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko gehienezko epearen barruan.

2. Jakinarazpena hori doakienen etxera edo baltzu--egoitzara bidaliko da karta egiaztatuaren bidez, telegramaz, telex bidez edo hartu dutenaren egiaztapena adieraz dezaketen bestalako komunikabidez.

3. Akordioaren edo erabakiaren garrantziak edo eraginak aholkugarria egin dezanean, disziplina-Organuak edo hori atxikita dagoeneko Erakundeak, Elkarteak edo Federakundeak hori argitaratzeko, zabaltzeko edo jendaurrean jartzeko agindua eman dezake, indarrean dauden legeen arabera pertsonek ohorerako eta intimitaterako duten eskubidea gordez.

elevará el expediente al órgano competente para resolver, manteniendo su propuesta de resolución inicial o, en su caso, modificándola de forma motivada y a la vista de las alegaciones que se hubieren formulado.»

*Artículo 24.*– 1. La resolución del órgano competente pondrá fin al expediente, habiendo de ser dictada en el plazo de quince días hábiles, a contar del siguiente al de la elevación del expediente por el Instructor.

2. Antes de dichar la resolución, el Organo competente para resolver podrá ordenar la práctica, para mejor proveer y con suspensión del término para dictar la resolución, de las diligencias de prueba que hubieren sido propuestas por los interesados en su momento oportuno y no se hubieren finalmente practicado, por denegación del Instructor o por cualquier otra causa no imputable al propio proponente.

Capítulo III: Drl Procedimiento Extraordinario o de Urgencia.

*Artículo 25.*– 1. Las disposiciones estatutarias y reglamentarias de cada modalidad deportiva deberán prever, dentro de las normas contenidas en el presente Reglamento, un procedimiento disciplinario de urgencia para el conocimiento y sanción de las infracciones cometidas con ocasión o como consecuencia de las pruebas, encuentros o competiciones deportivas, que requieran una intervención inmediata de los Organos disciplinarios para garantizar el normal desarrollo de las mismas.

2.– Los Organos disciplinarios podrán en estos supuestos celebrar simultaneamente los trámites de alegaciones de los interesados, pudiendo disponer que sea oral en lugar de escrito, y el de práctica de pruebas, -entre las cuales tendrán especial relevancia el acta arbitral del encuentro y los informes del delegado federativo y del delegado del propio Organo si lo hubiere-, dictando sus resoluciones con la urgencia que requiera el normal desarrollo o continuación de la prueba o competición.

3. El Organo disciplinario podrá igualmente adoptar suspensiones provisionales o cualquier otra medida cautelar que fuere necesaria.

4. Quedará siempre a salvo el principio de audiencia previa a los interesados, así como el derecho de éstos a recurrir contra lo acuerdos adoptados a través de las instancias que sean pertinentes.

Capítulo IV: Notificaciones y Recursos.

*Artículo 26.*– 1. Las providencias y resoluciones dictadas en los procedimientos disciplinarios deportivos deberán ser motivadas y notificadas a los interesados, -con expresión del contenido de las decisiones o acuerdos y las reclamaciones o recursos que en cada caso procedan-, en el plazo máximo de quince días a partir de su adopción.

2. Las notificaciones se realizarán en el domicilio o sede social de los interesados, mediante carta certificada, telegrama, telex o cualquier otro medio de comunicación que permitan tener constancia de su recepción por dichos interesados.

3. Cuando la trascendencia o repercusión del acuerdo o resolución lo aconseje, el Organo disciplinario o la Institución o Entidad asociativa o federativa a la que aquél esté adscrito podrá disponer además su publicación, difusión o comunicación pública, respetando siempre el derecho al honor y la intimidad de las personas conforme a la legalidad vigente.

*27. Atala.*– Arautegi honetan edo horretazko estatutuetan edo xedapen arauemaileetan murtziloak edo errekurtsoak egiteko eperik ez baldin bada ezartzen espreski, bost asteguneko epearen barruan tartejar ditzakete hori doakienek euren murtziloak edo errekurtsoak akordio edo erabaki espresoak direnean, eta horien ezean hogeitamar asteguneko epearen barruan.

2. Aurreko idazatian adierazitako lehenengo epea, murtziloa edo errekurtsoa sartzearen gai den akordioaren edo erabakiaren berri formaz emandako egunaren biharamunean hasiko da; eta bigarrena, murtziloaren edo errekurtsoaren ukapena emandako egunaren biharamunean, atal honetan xedatutakoa kontutan hartuz.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Araudi honetan edo estatutuetan zein xedapen arauemaileetan ez bada espreski eperik jartzen horretarako, kirol-diziplinaren alorrean egindako murtziloak edo errekurtsoak aintzakotzat ez hartuak edo ukatutakotzat joko dira horiek tartejarri ziren egunetik hiru hilabete pasa ondoren; halaz guztiz, horrek ezingo dio galerazi agintedun Organuari behar-beharrezkoak zaizkion akordio edo erabaki espresoak emateko.

*28. Atala.*– 1. Murtziloak edo errekurtsoak, horien berri izateko eta ebazteko, idatziz formalizatuko eta aurkeztuko dira beti agintedun organuaren etxean edo egoitzan edo administrazio prozedura orokorreko xedapen arauemaileetan aurrikusitako lekuetan.

2. Horietan murtziloak edo errekurtsoak formalizatu daitezeneko idazkiek, honako hauek jasoko dituzte:

a) Murtziloegilearen, errekurtsoegilearen eta gai horretan interesaturik dauden gainerakoen identifikapen xehapenak, horren legeztapen aktibo edo pasiboaren zuriztapenarekin batera.

b) Murtziloak edo errekurtsoak jaso dituzten ekintza, akordioa eta erabakia argi eta garbi adieraztea; azkeneko bi kasuetan, espresoak izan balira, horien kopia ere aurkeztu beharko dela.

c) Murtziloaren edo errekurtsoaren zio izan diren alegazioen eta horiek oinarritzen direneko fundamentuen eta manuen azalpena.

d) Praktikarako proposatzen diren frogen eginbideak.

e) Formulatzen diren uzien adierazpen konkretua eta zehatza.

Bigarren edo ondorengo errekurtsoak izango balira, aldez-aurreko derrigorrezko instantziak bete direla egiaztatu beharko da.

*29. Atala.*– 1. Kirol-diziplina alorrean klubek eta baterakundeek hartutako akordioen eta erabakien aurkako errekurtsoa, bazkide direneko lurralde federakunde-antolakundearen aurrean sar daiteke.

2. Lurralde Federakundeek hartutako disziplinazko akordio eta erabakien aurka errekurtsoa sar daiteke Antolakunde hori partaide deneko Euskal Federakundearen aurrean; eta modalitate horretako Euskal Federakundea sortu gabe balego, Kirol Disziplinako Euskal Komitearen aurrean.

3. Euskal Federakundeek emandako disziplinazko akordioen eta erabakien aurka errekurtsoa sar daiteke Kirol Disziplinazko Euskal Komitearen aurrean.

4. Kirol Disziplinako Euskal Komiteak emandako disziplinazko akordioek eta erabakiek agortu egiten

*Artículo 27.*– 1. En el caso de no establecerse expresamente un plazo de reclamación o recurso en el presente Reglamento o en las disposiciones estatutarias o normativas correspondientes, los interesados podrán interponer sus reclamaciones o recursos dentro del plazo de cinco días hábiles en el supuesto de acuerdos o resoluciones expresas, o de treinta días hábiles en el caso de no existir éstas.

2. Los plazos señalados en el número anterior comenzarán a contar, el primero a partir del día siguiente al de la notificación en forma del acuerdo o resolución contra la que se reclame o recurra, y el segundo a partir del día siguiente al que la reclamación o recurso deban entenderse desestimados a tenor de lo dispuesto en el presente artículo.

3. A efectos de lo dispuesto en los números anteriores, y en el caso de no establecerse expresamente un plazo en el presente Reglamento o en las disposiciones estatutarias o normativas correspondientes, las reclamaciones o recursos formulados en materia de diciplina deportiva se entenderán desestimados o denegados por el transcruso de tres meses a partir de su interposición, sin que ello obste al deber del Organo competente a dictar acuerdo o resolución expresa.

*Artículo 28.*– 1. Las reclamaciones o recursos se formalizarán y presentarán siempre por escrito, en el domicilio o sede del órgano competente para conocer y resolver de los mismos o en los lugares previstos en las disposiciones reguladoras del procedimiento administrativo general.

2. Los escritos en que se formalicen reclamaciones o recursos deberán contener:

a) Datos de identificación del reclamante o recurrente y de los demás interesados en el asunto, con justificación de su legitimación, activa o pasiva.

b) Expresión clara del acto, acuerdo o resolución contra los que se reclama o recurre, acompañando en los dos últimos casos copia de los mismos si hubieren sido expresos.

c) Exposición de las alegaciones que motivan la reclamación o recurso, y de los fundamentos o preceptos en que se basa el mismo.

d) Diligencias de prueba que, en su caso, se propongan para práctica.

e) Y, expresión concreta y precisa de las pretensiones que se formulan.

Asimismo, en el supuesto de recurso en segunda o sucesivas instancias, deberá acreditarse el cumplimiento de las instancias previas preceptivas.

*Artículo 29.*– 1. Los acuerdos y resoluciones dictados por clubes y agrupaciones en materia de disciplina deportiva podrán ser recurridos ante la organización federativa territorial a la que pertenezcan.

2. Contra los acuerdos y resoluciones disciplinarios dictados por las Organizaciones federativas territoriales cabrá recurso ante la Federación Vasca a la que dicha Organización pertenezca, o ante el Comité Vasco de Disciplina Deportiva si la Federación Vasca de la modalidad de que se trate no estuviere aún constituída.

3. Los acuerdos y resoluciones disciplinarias de las Federaciones Vascas podrán ser recurridas ante el Comité Vasco de Disciplina Deportiva.

4. Los acuerdos y resoluciones disciplinarias dictados por el Comité Vasco de Disciplina Deportiva agotan

dute administrazio bidea; eta aplikagarriak diren jurisdikzio erregelen arabera, errekurtsoa sar daiteke horien aurka.

*30. Atala.*– 1. Murtziloaren edo errekurtsoaren erabakiak sendetsi, aldatu edo indargabetu egingo du errekurtsoaren gai izan den akordioa edo erabakia; aldatuko balitz, eta murtziloegile edo errekurtsogile bakarra izatea gertatuz gero, hori doakionak ez du kalterik jasan beharko.

2. Murtziloaren eta errekurtsoaren berri izateko eta ebazteko agintedun organua gai izango da espedientean formazko akatsen bat egon denaz ohartzeko eta ofizioz aitortzeko; horrelakoetan, ez-arauzkotasun hori gertatu zen unerarteko edo izapidea gauzatu zenararteko atzera-indarra izan dezakeela, eta hori erabakitzeko formula espreski adierazi beharko dela.

## III. IDAZPURUA

### I. Atalburua: Kirol disziplinako Euskal Komitea.

*31. Atala.*– Kirol Disziplinako Euskal Komitea, kirol-disziplinako alorrean organu gorena da Euskal Herriko eremuan. Klubekiko, baterakundeekiko, federakundeekiko eta erakundeekiko atxekipenik gabe jarduten du bere aginteez baliatzen denean.

*32. Atala.*– Honako hauek ezagutzea eta, administrazio mailako azken instantziz, ebazpena ematea dagokio Kirol Disziplinako Euskal Komiteari:

a) Euskal Herriko Federazioek, disziplina-arloan hartutako akordioen aurkako errekurtsoak sartzea.

b) Lurralde Federazioek disziplina-arloan hartutako akordioen aurkako errekurtsoak sartzea, dagokion kirol-moetako Euskal Herriko Federakundea sortuta egon ez dadinaren kasuan.

c) Eskola-kirol, unibertsitate-kirol edo bereziki araututa dagoen kirol baten arloan agintea duten disziplina organu ezberdinek hartutako akordioen aurkako errekurtsoak sartzea.

d) Ofizioz edo, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak edo agintedun beste instituzio batzuk eskatuta, ezagutzea eta ebazpena ematea egokitzat jo dezaneko arazo guztiak eta kirol-disziplina mailakoak direnak bakarrik.

*33. Atala.*– Kirol Disizplinako Euskal Komiteak eman ditzan erabakiek, administrazio-bidea amaitzen dute eta errekurtsoaren gai izan daitezke, aplikagarri diren jurisdikzio-arauen arabera.

*34. Atala.*– Kirol Disziplinako Euskal Komiteak hartu ditzan erabakiak, Eusko Jaurlaritzako Kirol-Zuzendaritzak gauzatuko ditu, berez edo dagokion federazio-erakundearen bidez, eta, aplikagarri den administrazio-prozedurako arauen arabera, zehatz-mehatz bete daitezenaren ardura hartuko duela.

### II. Atalburua: Komitearen Osakera, Kideen Izendapena eta horien Egitekoak.

*35. Atala.*– 1. Bost kide titularrek osatuko dute Kirol Disziplinako Euskal Komitea; eta, behar balitz, ordeazko kide bat ere izango da, horiek ez egoteagatik edo horien gaisotasunaren ondorioz gerta daitezen baja ofizialak betetzeko.

Kide titularrek eta ordeazkoak berak ere Zuzenbidean lizentziadunak izan beharko dute eta kirol alorrean aitortutako esperientzia izan beharko dute.

la vía administrativa, y podrán ser objeto de recurso de acuerdo con las reglas jurisdiccionales aplicables.

*Artículo 30.*– 1. La resolución de la reclamación o recurso confirmará, modificará o revocará el acuerdo o resolución recurrido, no pudiendo, en caso de modificación, derivarse mayor perjuicio para el interesado en el supuesto de que éste sea el único reclamante o recurrente.

2. El órgano competente para conocer y resolver una reclamación o recurso tendrá facultad para apreciar y declarar de oficio la existencia de vicio formal en el expediente, pudiendo en ese caso ordenar su retroacción hasta el momento o trámite en que se produjo la irregularidad, con indicación expresa de la fórmula para resolverla.

## TITULO III

### Capítulo I: El Comite Vasco de Disciplina Deportiva.

*Artículo 31.*– El Comité Vasco de Disciplina Deportiva es el órgano superior en materia disciplinaria deportiva dentro del ámbito del País Vasco. Actúa, en el ejercicio de sus competencias, con total independencia de clubes, agrupaciones, federaciones e instituciones.

*Artículo 32.*– Corresponde al Comité Vasco de Disciplina Deportiva conocer y resolver, en última instancia administrativa:

a) Los recursos que se interpongan contra los acuerdos adoptados en materia disciplinaria por las Federaciones Vascas.

b) Los recursos que se interpongan contra los acuerdos adoptados en materia disciplinaria por las Federaciones Territoriales, en el supuesto de que no estubiera aún constituída la Federación Vasca del deporte de que se trate.

c) Los recursos que se interpongan contra los acuerdos de los diferentes órganos disciplinarios competentes en el ámbito del deporte escolar, del deporte universitario o de cualquier otro específicamente reglamentado.

d) Y, cuantas cuestiones, estrictamente de disciplina deportiva, estima pertinente conocer y resolver de oficio, o a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco o de otras instituciones competentes.

*Artículo 33.*– Las resoluciones dictadas por el Comité Vasco de Disciplina Deportiva agotan la vía administrativa, y podrán ser objeto de recurso de acuerdo con las reglas jurisdiccionales aplicables.

*Artículo 34.*– Las resoluciones dictadas por el Comité Vasco de Disciplina Deportiva se ejecutarán por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, directamente o a través de la correspondiente organización federativa, -que se responsabilizará de su más estricto cumplimiento-, conforme a las normas del procedimiento administrativo aplicable.

### Capítulo II: Composición del Comite, Designación de sus Miembros y Funciones de los Mismos.

*Artículo 35.*– 1. El Comité Vasco de Disciplina Deportiva estará integrado por cinco miembros titulares, y, en su caso, un miembro suplente para cubrir los casos de baja oficial por ausencia o enfermedad de aquéllos.

Tanto los miembros titulares como, en su caso, el suplente deberán ser licenciados en Derecho y contar con reconocida experiencia en materia deportiva.

2. Komiteak Idazkaria izango du, Zuzenbidean lizentziaduna eta hitzegiteko eskubidea bai baina botorik izango ez duena.

3. Komite-Burua eta Buruordea Komiteko kide titularren artetik aukeratuko dira, atalburu honetan ezartzen den moduan.

*36. Atala.*– 1. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari atxikita daudeneko Sailaren Buruak izendatuko ditu Kirol Diziplinako Euskal Komiteko kideak, honako modu honetan:

a) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak proposatutako bi kide.

b) Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Abokatu Kolegioek proposatutako hiru kide, Lurralde Historiko bakoitzeko bat.

2. Horiez gain, honako hauek dagozkio Sailburuari:

a) Komiteak proposamena egin ondoren, ordeazko kidea izendatzea.

b) Komiteko kideek proposatu ondoren, Komite-Burua eta Buruordea izendatzea.

c) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak proposatu ondoren, Idazkaria izendatzea.

*37. Atala.*– 1. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak proposatu ondoren izendatutako Komite-kideen aginte-iraupena lau urtekoa izango da, eta bi urtekoa gainerakoena, ordeazkoa barne; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian izendapenak argitaratutako eguna izango da epealdi horren lehena.

2. Komite-Buru izendatutako kidearen aginte-aldia lau urtekoa izango da beti.

3. Bai kide batzuen zein besteen agintea amaitu baino hirurogei egun lehenago ofizioak bidaliko dizkie Komiteko Idazkariak Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari eta atxikita dagoeneko Sailburuari, zernolako horren berri emanez eta aurreko atalean ezarritako sistemaz kide horien berrikuntza burutzeko.

4. Kide berrien berrikuntza eta horien izendapena edozer gauza dela eta atzeratuko balitz, jurisdikzio-luzapen egoeran sartuko dira besterik gabe utzitakoek, eta kide berrien izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu artean jarraituko dute euren egitekoak burutuz.

*38. Atala.*– 1. Kirol Disziplinako Euskal Komitearen karguak ohore-izaerakoak izango dira, burutzen ari diren ihardunari dagozkien dietak bakarrik ordainduko zaizkiela.

2. Honako hauek izango dira bateraezintasunezko kariak Komiteko kide izatearekin:

a) Funtzionari lez edo lan-kontratuz Euskal Administrazio Publikoari dagokion kirol-izaerako edo alor horretan aginteak dituen organuari edo erakundeari atxikita egotea.

b) Euskal Herriko kirol-klub, -baterakunde edo -federakundeko disziplina-organuko partaide izatea.

c) Euskal Herriko kirol-federakunderen bateko batordekide edo teknikari izatea, edo kirol-modalitateren bateko arbitroen edo epaileen kolegioko partaide izatea.

2. El Comité estará asistido por un Secretario, con voz pero sin voto, que habrá de ser igualmente licenciado en Derecho.

3. De entre los miembros titulares del Comité se elegirán los cargos de Presidente y Vicepresidente del mismo, en la forma que se establece en el presente capítulo.

*Artículo 36.*– 1. Los miembros del Comité Vasco de Disciplina Deportiva serán designados por el Consejero del Departamento alcual esté adscrita la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, en la siguiente forma:

a) Dos miembros a propuesta de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.

b) Tres miembros a propuesta de los Colegios de Abogados de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya, a razón de uno por cada Territorio Histórico.

2. Corresponderá asimismo al citado Consejero:

a) La designación del miembro suplente, a propuesta del propio Comité.

b) La designación de su Presidente y Vicepresidente, a propuesta de los propios miembros del Comité.

c) El nombramiento de Secretario. a propuesta de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.

*Artículo 37.*– 1. La duración del mandato de los miembros del Comité será de cuatro años para los designados a propuesta de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, y de dos años para los restantes miembros, incluído en su caso el miembro suplente, computándose dicha duración a partir de la fecha de publicación de su designación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2. La duración del mandato del miembro designado Presidente será en todo caso de cuatro años.

3. Sesenta días antes de expirar el mandato de los miembros de que se trate, el Secretario del Comité remitirá sendos oficios a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco y al Consejero del Departamento a la que aquélla esté adscrita comunicándoles tal circunstancia, a fin de que se proceda a la renovación de dichos miembros por el sistema establecido en el artículo anterior.

4. En el supuesto de demorarse por cualquier causa la renovación y designación de nuevos miembros, los cesantes entrarán automáticamente en situación de prórroga de jurisdicción, y seguirán desempeñando sus funciones hasta que la renovación tenga efectividad por la publicación de la designación de los nuevos miembros en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 38.*– 1. Los cargos de miembros del Comité Vasco de Disciplina Deportiva tendrán carácter honorífico, devengándo tan sólo las dietas que en razón de la actividad fueren pertinentes.

2. Serán causas de incompatibilidad con el desempeño del cargo de miembro del Comité:

a) La adscripción, como funcionario o por vínculo derivado de contrato de trabajo, a órgano o institución de naturaleza o competencias en el ámbito deportivo perteneciente a la Administración Pública Vasca.

b) La pertenencia a un órgano disciplinario de club, agrupación o federación deportiva del País Vasco.

c) El desempeño de un cargo directivo o técnico en alguna organización federativa deportiva del País Vasco, así como la pertenencia al colegio de árbitros o jueces de alguna modalidad deportiva.

d) Indarrean dauden legeek hartzen dituzten bestelako bateraezintasunak orohar.

3. Indarrean dauden legeetan aurrikusitako abstentzio eta ezespen kariak ere aplikatuko zaizkie Komiteko kideei.

*39. Atala.*– 1. Honako egiteko hauek dagozkio Kirol Disziplinako Euskal Komiteko Buruari:

a) Komitearen bilereterako dei egitea eta horien buru izatea, eztabaidak zuzenduz.

b) Komiteak hartutako erabakiak eta izapide hutsekoak izan ez daitezen gainerako jakinerazpenak eta agiriak sendestea bere izenpeaz.

c) Komitearen ordezkari izatea edozein eratako ekintzetan eta edozein Erakunde, Organismo, Entitate edo pertsonaren aurrean.

d) Kide titular bat ofizialki ez egotea edo gaisorik egotea gertatuz gero, horren ordeazkoa jartzea.

e) Komitearen jokabide zuzenaz eta gobernuaz arduratzea, bere agintepeko alorra erregulatzen duten arauak eta xedapenak betez eta betearaziz, horren ihardun ona eta gaiak arauzkotasunez gauzatzea berma dezaten erabakiak hartuz, eta komiteko guztiek euren obligazioak behar-bezala bete dezatenaren arta eginez.

2. Aurreko zenbakian zerrendaratutako egitekoak, Komiteburua ez dagoenean, Komiteburuordeak egiteratuko ditu behin-behingotasunez.

*40. Atala.*– Honako egiteko hauek dagozkio Kirol Disziplinako Euskal Komiteko Idazkariari:

a) Organu honi eskura dakizkion lanetan behar-hainbateko laguntza eskeintzea Komiteari eta berorren kideei.

b) Korrespondentzia ofizialaz eta hori erregistratzeaz arduratzea.

c) Bidezkoak diren ziurtagiriak eta iharduketei eta erabakiei buruz hori doakionak eskatutako aitormenak eta kopiak ematea, Komiteburuaren oneritzia izan ondoren.

d) Izapidetze hutsekoak diren jakinarazpenak izenpetzea eta ematea.

e) Komitearen bileretarako deialdiak bideratzea, eguna eta ordua adieraziz eta gai-zerrenda emanez.

f) Izapide guztiak zehatz-mehatz beteko direla zaintzea eta gerta daitezkeen akats guztiei buruzko oharrak luzatzea.

g) Espedienteen apuntaketak laburbilduz eta behar-bestean prestatzea, horien berri Komiteko kide guztiek izan dezaten.

h) Komiteko bazkideen artean gaiak banatzea eta ponentzien izendapena egitea, ezarrita izan dezaten txanda-sistemaren arabera.

i) Komiteko zigilua, agiriak eta artxiboa gorde eta zaintzea.

III Atalburua.– Komitea Sortzea eta bere Iharduera.

*41. Atala.*– 1. Komiteburua edo, hori ezean, Komiteburuordea eta, gutxienez, bertako bi kide bahintzat bertan egon daitezenean, baliotasunez osatuta geldituko da Kirol Disziplinako Euskal Komitea.

d) Y, en general, cualquier otro supuesto de incompatibilidad establecido en la legislación vigente.

3. A los miembros del Comité le serán aplicables igualmente las causas de abstención y recusación previstas en la vigente legislación.

*Artículo 39.*– 1. Al Presidente del Comité Vasco de Disciplina Deportiva le corresponderán las siguientes funciones:

a) Convocar y presidir la sesiones del Comité dirigiendo sus deliberaciones.

b) Autorizar con su firma las resoluciones del Comité y las demás comunicaciones y documentos que no sean de mero trámite.

c) Representar al Comité en toda clase de actos y ante cualquier Institución, Organismo, Entidad o persona.

d) Disponer la sustitución de un miembro titular por el suplente en caso de baja oficial por ausencia o enfermedad de aquél.

e) Cuidar del buen orden y gobierno del Comité, cumpliendo y haciendo cumplir las normas y disposiciones que regulan la materia de su competencia, adoptando las decisiones que aseguren su buen funcionamiento y el normal despacho de los asuntos, y velar por que todos los componentes del Comité cumplan debidamente sus obligaciones.

2. Las funciones relacionadas en el número anterior serán transitoriamente ejercidas por el Vicepresidente del Comité en ausencia del Presidente.

*Artículo 40.*– Al Secretario del Comité Vasco de Disciplina Deportiva le corresponden las siguientes funciones:

a) Prestar al Comité y a sus miembros la asistencia necesaria en los trabajos que a éste Organo se atribuyan.

b) Llevar la correspondencia oficial y el registro de la misma.

c) Expedir, con el visto bueno del Presidente, las certificaciones que procedan, así como los testimonios y copias que se soliciten por parte interesada respecto a las actuaciones y resoluciones.

d) Firmar y expedir las comunicaciones de mero trámite.

e) Cursar las convocatorias para las sesiones del Comité, señalando día y hora y expresando el orden del día.

f) Cuidar de la estricta observancia de todos los trámites y advertir sobre aquellos defectos de forma que estime se hayan producido.

g) Preparar de forma concisa y completa los apuntamientos de los expedientes para conocimiento de los mismos por todos los miembros del Comité.

h) Llevar el reparto de asuntos y asignación de ponencias entre los miembros del Comité, de acuerdo con el sistema de turno que aquéllos tengan establecido.

i) Conservar y custodiar el sello, documentación y archivo del Comité.

Capítulo III: Constitución y Funcionamiento del Comite.

*Artículo 41.*– 1. El Comité Vasco de Disciplina Deportiva quedará válidamente constituído con la presencia del Presidente, -o, en su defecto, el Vicepresidente-, y la de al menos otros dos de sus miembros.

2. Komiteko kide guztiek dute batzarretara joan beharra. Hori ezinezkoa izan dakienean, Idazkariari emango diote horren berri aurrez, Komiteburuak arauzkoa den ordezkaria bertan egon dadila egin dezan.

3. Komitearen egoitzan egingo dira batzarrak, halako edo holako batzar berezi egiteko Komite'..ruak beste lekuren bat izenda dezan kasuetan izan ezik.

*42. Atala.*– Gaizerrendan sartutako arazo edo gaiak eztabaidatu eta horiei buruzko akordioak bakarrik hartu ahal izango dira Komitearen batzarretan.

Salbuespenez, Komiteburuaren eta bertan dauden kide guztien baterako onarpenez, presatasunez aztertzea komeni deneko beste gai batzuk erabili ahal izango dira.

*43. Atala.*– Horien berri Komiteari eman behar zaieneko gaien izapideketa, Arautegi honetako II. Idazpuruan finkatutako erizpideak kontutan izanik burutuko da.

1. Errekurtsoa aurkeztu edo espedientea eskuratu ondoren, horren apuntaketa egingo du Idazkariak, eskatu diren formazko eskakizunak bete diren eta aldez-aurreko bidezko instantziak kontutan izan diren espreski erasota utziz.

2. Apuntaketa egin ondoren, ponentzia gauzatzea dagokionari entregatuko zaio espedientea, komiteak finkatuta duen banaketa-sistemari jarraituko zaiola horretarako; ponentzigileak, espedientea entregatutako egunean hasiko den hogeitamar astegunekoa baino luzeagoa izango ez den epealdian egingo den hurrengo bileran, erabakitzezko proposamena egingo du eztabaidatua eta ebatzia izan dadin; proposamen hori, honako aukeretetatik baten araberakoa izango da:

a) Ez da errekurtsoaren izapideketarik egingo, prozeduraren funtsezko eskakizunak bete ez direlako, aldez-aurreko instantziak agortu ez direlako edo Komitearen aginteen arduarapekoa ez delako.

b) Errekurtsogileari edo murtzilogileari honako hau eskatzea, hots, aurkeztutako agiriak osatu ditzala edo murtziloaren zein errekurtsoaren izapideketa ukatzekoa modukoak ez diren formazko akatsak zuzendu ditzala hamar asteguneko epearen barruan; horrela jokatuko ez balu, ihardueketak artxibatu egingo direla oharteraziz.

c) Errekurtsoaren edo murtziloaren izapideketa onartzea, errekurtsoaren edo salaketaren gai izan denari horren berri emanez, hamabost asteguneko epearen barruan alegazio-idazki bat aurkeztu dezan, eta bidezkoak derizkion froga-egınbideak proposatuz behar izanez gero.

3. Nahiko izango da, lehenengotan, hori doakienei audientzia ematezko izapidea betzea, espedientea erabakitzezko proposamena egiteko.

Ponentzigileak, aurrez esandakoaren kaltetan gabe, eta ofizioz edo hori doakionak hala eskatuta, beharrezkoak derizkion froga-eginbideen praktika egitea agindu dezake, ekintzak guztiz argitu asmoz eta Komiteak, behin-betiko erabakia eman aurretik, horien berri zehatzagoa izan dezan. Froga-praktikarako epealdia ez da hamabost astegunekoa baino gehiagokoa izango, Komiteko kide ponentzigileak hori onartu edo eskuratutako egunetik kontatzen hasita.

2. Todos los miembros del Comité tienen el deber de asistir a sus sesiones. Cuando ello no les fuera posible, deberán comunicarlo al Secretario con la debida antelación, al objeto de que por el Presidente se provea la reglamentaria sustitución.

3. Las sesiones del Comité tendrán lugar en la sede del mismo, salvo que, a propuesta del Presidente, se señale otro lugar diferente para la celebración del alguna sesión concreta.

*Artículo 42.*– En las sesiones del Comité sólo podrán debatirse y decidirse las cuestiones o asuntos que hayan sido incluidos en el orden del día.

Excepcionalmente, a propuesta del Presidente y con la aprobación unánime del resto de los miembros asistentes, podrán conocerse otros asuntos que requieran un tratamiento urgente.

*Artículo 43.*– La tramitación de los asuntos sometidos a conocimiento del Comité se efectuará con arreglo a los principios establecidos en el Título II del presente Reglamento, en la siguiente forma:

1. Presentado el recurso o recibido el expediente, el Secretario realizará el apuntamiento del mismo, haciendo constar expresamente si se han cumplido los requisitos formales exigidos y se han observado las instancias previas pertinentes.

2. El expediente, con su apuntamiento, será entregado al miembro al que corresponda la ponencia del mismo, -según el sistema de reparto que el comité tuviere establecido-, quien, en la próxima sesión a celebrarse y en cualquier caso no más tarde de un plazo de treinta días hábiles a partir de la entrega del expediente, evacuará la correspondiente propuesta de resolución para su deliberación y fallo, en cualquiera de los siguientes sentidos:

a) Rechazar la admisión a trámite del recurso, por no haberse cumplido los requisitos esenciales de procedimiento, no haberse agotado las correspondientes instancias previas o no ser objeto de las competencias del Comité.

b) Requerir al recurrente o reclamante a que, en el plazo de diez días hábiles, complete la documentación aportada o subsane los defectos formales en que hubiere incurrido y no fueran de la entidad suficiente para rechazar la admisión a trámite de la reclamación o recurso, con apercibimiento de archivo de las actuaciones si así no se hiciere.

c) Admitir a trámite el recurso o reclamación, dando traslado a la parte recurrida o denunciada, a fin de que en el plazo de quince días hábiles presente el oportuno escrito de alegaciones, proponiendo en su caso las diligencias de prueba que estimen convenientes.

3. El cumplimiento del trámite de audiencia a los interesados será en principio suficiente para formular la propuesta de resolución del expediente.

Sin perjuicio de ello, el Ponente, de oficio o a instancia de parte interesada, podrá ordenar la práctica de las diligencias de prueba que estime necesarias para un total esclarecimiento de los hechos y un mejor conocimiento de los mismos por parte del Comité antes de dictar la resolución definitiva. El plazo para la práctica de prueba no podrá exceder de quince días hábiles contados a partir de su admisión u orden de adopción por el miembro Ponente del Comité.

4. Aipatu izapideak bete ondoren, horretazko behin--betiko erabaki-proposamena aurkeztuko du ponentzigileak, eztabaidatua izan dadin eta horri buruzko ebazpena emateko.

5. Ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kiroletarako Zuzendaritzaren zein agintedun bestalako organismoren eskabidez Komiteak hasiarazitako espedienteentzat ere aplikagarria izango da atal honetako aurreko zenbakietan ezarritako prozedura.

6. Aurrez adierazitako prozedurari jarraiki horien berri izateak eta horiek erabakitzeak konponduezineko kalteak ekar baditzake, presatasunezko izapideketa mana daiteke Ponentzigileak ondo baderitzo, eta honako arau hauek kontutan izanik:

a) Idatzizko audientzia-izapideketaren ordez berbazkoa eskeintzea hori doakienei.

b) Audientzia-izapideketarekin batera egingo den froga-praktika.

c) Espedientea berehala edo horren guztizko eragin-kortasunerako behar den epearen barruan erabakitzea.

7. Aurreko zenbakietan aurrikusitako kasuetan, Komiteak, hori doakionak eskatu ondoren edo, ofizioz, espedientea gauzatzeaz arduratutako Ponentzigileak proposatu ondoren, badaezpadako neurriak hartzeko agindua eman dezake espedientearen ebazpena eragin-korra izan dadin edo konponezinezko kalteak eta kalte-galerak eragozteko.

Espedientearen izapideketak diraueno jarraituko dute neurri horiek, horren behin-betiko erabakian berretsi edo ondoriorik gabe utzi artean.

*44. Atala.*– 1. Kirol Disziplinako Euskal Komitearen erabakiak eta akordioak, gai bakoitza eztabaidatu eta botatu ondoren, horren bileretan hartuko dira, hartutako akordioen akta adierazlea egingo dela.

2. Komitearen erabaki guztiak ziopekoak izango dira, epaia bidezkotzat jotzen duten lege-ekintzak eta -fundamentuak laburbilduta adieraziz.

3. Komiteak hartutako erabakien eta akordioen baliozkotasunak bilerara doazen kideen gehiengoaren aldezko botoa eskatzen du; berdinketa gertatuz gero, Komite-Buruaren botoak ebazte-indarra izango du; eta bat ez datozen eskubidea, euren boto partikularra akordioan edo erabakian sartzekoa alegia, errespetatu egingo da beti.

4. Komiteak, hori doakionak hala eskatuta eta argitu beharreko akordioaren edo erabakiaren berri emandako egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta bi astegune-ko epearen barruan eskabidea idatziz egin ondoren, hartutako akordioak eta erabakiak argitu ditzake.

5. Komitearen erabakiak Arautegi honetako 34. atalean ezarritako moduan burutuko dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

– Dekretu honek indarra hartzeko unean izapideketa-bidean izan daitezen kirol-disziplinako espedienteak, aldez-aurretik indarrean zeuden xedapen arauemaileen arabera izapidetuko dira gero ere, hori doakienen aldekoak izan daitezkeen ondorioak salbuetsiko direla agiango horretatik.

4. Cumplidos los trámites que anteceden, el Ponente presentará para su deliberación y fallo la correspondiente propuesta de resolución definitiva.

5. El procedimiento establecido en los números anteriores del presente artículo será también aplicable a los expedientes que el Comité acuerde incoar de oficio o a instancia de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco o de cualquier otro organismo competente.

6. Para los asuntos cuyo conocimiento y resolución por el procedimiento anterior sea susceptible de dar lugar a perjuicio irreparable, a juicio del Ponente, podrá decretarse el trámite de urgencia, con arreglo a las siguientes normas:

a) Sustitución del trámite de audiencia a los interesados escrito por el oral.

b) Práctica de prueba simultánea al trámite de audiencia.

c) Resolución del expediente inmediata o dentro del plazo necesario para su total efectividad.

7. En cualquiera de los supuestos previstos en los números precedentes, el Comité, a instancia de parte interesada o bien de oficio a propuesta del Ponente encargado de la instrucción del expediente, podrá ordenar la adopción de las medidas cautelares que fueran precisas para salvaguardar la efectividad del fallo del expediente o para evitar un daño o perjuicio irreparable.

Estas medidas subsistirán mientras dure la tramitación del expediente, hasta ser ratificadas o dejadas sin efecto en la resolución definitiva del mismo.

*Artículo 44.*– 1. Las resoluciones y acuerdos del Comité Vasco de Disciplina Deportiva se adoptarán en sesión del mismo, previa deliberación y votación sobre cada asunto, levantándose el correspondiente acta expresiva de los acuerdos adoptados.

2. Todas las resoluciones del Comité deberán ser motivadas, con expresión sintetizada de los hechos y de los fundamentos legales que justifican el fallo, indicando en su caso los recursos que contra cada resolución procedan.

3. La validez de las resoluciones y acuerdos del Comité requerirá el voto favorable de la mayoría de los miembros asistentes a la sesión, siendo dirimente el voto del Presidente en caso de empate, y quedando siempre a salvo el derecho de los disidentes que estuvieren presentes a incluir en el acuerdo o resolución su voto particular.

4. El Comité podrá aclarar los acuerdos y resoluciones adoptados, a instancia de parte interesada, previa petición formulada por escrito dentro del plazo de dos días hábiles a contar del siguiente a aquél en el que el acuerdo o resolución a aclarar hubiere sido notificado.

5. Las resoluciones del Comité se ejecutarán en la forma establecida en el Art. 34 del presente Reglamento.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

– Los expedientes disciplinarios deportivos que se encuentran en tramitación en el momento de la entrada en vigor del presente Decreto continuarán tramitándose conforme a las disposiciones normativas anteriormente vigentes, salvo por lo que se refiere a los efectos que pudieren ser favorables a los interesados.

– Aurreko Xedapenek aipatzen dituzten egokitzapenak gertatu artean, Dekretu honetan ematen diren erizpideak lehentasunez aplikatuko dira.

– Euskal Herriko kirol-klubetan, baterakundeetan eta federakundeetan diziplia-organuak eratu arte, Kirol Diziplinako Euskal Komiteak burutuko ditu horiei dagozkien aginteak eta egitekoak.

– Dekretu honek indarra hartzerakoan izan ditzakeen kide kopuruaz egiteratuko ditu bere egitekoak Kirol Diziplinako Euskal Komiteak, Arautegi honetan ezarritako denboran eta moduan horien berriketa egitea egokia gertatu artean.

INDARGABETZEZKO XEDAPENA

Arautegi honetan xedatutakoaren aurkakoak izan daitezen maila bereko eta apalagoko xedapen erregelaemaileak indargatuta gelditzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Kirol Federakunde, Klub eta Baterakundeek sei hilabete izango dituzte euren Estatutuak eta Arautegiak hemen emandako arauei egokitzeko, Dekretu honek indarra har dezanetik hasita.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunaren biharamunetik hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1989.eko urtarrilak 10.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

– Hasta tanto se produzcan las adaptaciones a que se refieren las Disposiciones anteriores, los principios y preceptos del presente Decreto se aplicarán con carácter preferente.

– Hasta tanto se constituyan los órganos disciplinarios de los clubes, agrupaciones y organizaciones federativas deportivas del País Vasco, sus competencias y funciones serán ejercidas por el Comité Vasco de Disciplina Deportiva.

– El Comité Vasco de Disciplina Deportiva seguirá ejerciciendo sus funciones con la composición de sus miembros que tenga en la fecha de entrada en vigor de este Decreto, hasta que proceda su renovación en el tiempo y forma establecido en el presente Reglamento.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones reglamentarias, de igual o inferior rango, se opongan a lo dispuesto en el presente Reglamento.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Las Federaciones, Clubes y Agrupaciones Deportivas adaptarán sus Estatutos y Reglamentos a la presente normativa en el plazo de seis meses, a partir de la entrada en vigor de este Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de enero de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

# Agintariak eta Lanarigoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, egoerak eta gora-beherak
## Nombramientos, situaciones e incidencias

OSASUNKETA ETA KONTSUMO SAILA

226

324/1988 DEKRETUA, azaroaren 23koa, Administrazioko beste kargu bat bete dezan, Osasunketa eta Kontsumo Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako Zuzendariak bere kargua hutz dezala xedatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. ataleko j idazatian, 26. ataleko 6 idazatian eta eta 29. atalean xedatutakoaz bat etorriz, Osasunketa eta Kontsumo Sailburuaren proposamenez, 1988.eko azaroaren 23an egindako bilkuran Jaurlaritzako Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

226

DECRETO 324/1988, de 23 de noviembre, por el que se dispone el cese, por pasar a ocupar otro cargo en la Administración, de la Directora de Administración y Servicios del Departamento de Sanidad y Consumo.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j, 26 apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de Junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero de Sanidad y Consumo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el día 23 de noviembre de 1988,